

LABetik egin dugun lanari esker Hezkuntza Sailak atzera pausu bat eman eta ratio eta metrajeen inguruan hitzartutakoa betetzen ari da



Ikasturte hasieratik salatu dugu LABetik Lan Hitzarmen berrian ratio eta metrajeen inguruan jasotzen dena betetzeko atzerapenetan zebilela Hezkuntza Saila.

Beharren azterketa berandu etorri da eta honek langileen lan karga handitzea ekarri du. Hamarnaka erreklamazio aurkeztu ditugu eta burututako Mahai Negoziatzaile guztietan mahaigaineratu dugu egoera larria. Hezkuntza Sailak ezikusiarena egin edo aitzakiak edo bestelako interpretazioak erabili izan ditu adostutakoa sistematikoki hausteko.

Sukaldeetan, bazkaltiarren datu bilketa, beste behin ere, berandu egin da, LABetik datu hauen jasoketa lehenago egin behar dela eskatu dugu. Maiatzaren 22an sinatu genuen Lan Hitzarmenaren aurreakordioaren zuzenketen akordioan LABetik eskatuta eta horrela sinatu zen, ratioak kalkulatzeko bazkaltiarren kopuruarekin batera sukaldarien jardun osoko konputua 7 ordukoa izatea, Orain arte ez du aplikatu, interpretazio okerra egiten aritu da, aurreko hitzarmeneko ratioak aplikatuz.

Garbiketan, agerian geratu da Sailak izan duen aurreikuspen falta, metroen azterketa egiteko urriaren 10ean zentroetara bidalitako zirkularrean gabealdia eskatuz. Honek irailaren 1etik indarrean egon beharko luken metraje berria ez betetzea ekarri du, langileen eskubideak hautsiz.

Hezkuntza Sailak azkenean, LABetik hainbatetan erreklamatu eta sinatu duguna aplikatzen ari da: batetik, sukaldeetan 7 orduko koefizientea aplikatuko duela, kontratazio berriak eginaz eta bestetik, garbiketako metraje berriari jarraituz baliabide pertsonal gehiago jarritz. LABetik jarraipen zorrotza egiten ari gara behar diren baliabide guztiak jarri ditzaten eta hutsuneak dauden zentroak hornitzeko erreklamazioak jartzen jarraituko dugu, Lan Hitzarmenean jasotzen dena zehatz mehatz bete dadin.

Lan Hitzarmen berrian, enplegu prekarizatua mugatzeko helburu irmoarekin, hereneko ekoizpen arrazoiengatik kontratuen erabilera sistematikoarekin bukatzeko, kontratu mota hauen gutxieneko jarduna ez dela jardun erdia baino txikiagoa izango jasotzen da. Lanean gaude jardunaldi erdira iristen ez diren beharrak estal daitezen, beti ere gutxieneko jardunaldi erdia errespetatuz eta hitzarmenean jasotzen dena bermatuz: *"Sukalde berriak egiten direnean, Hezkuntza Saileko langileak jarriko dira. Bertako langileak dituzten zentroetan, obrak direla-eta garbitu beharreko metro kopurua handitzen bada, langile propioekin kontratatuko dira; era berean, ratioen beherakadaren ondorioz kontratazio-premia berriak sortuko balira, langile propioekin egingo lirateke."*

Gainera, **Lan hitzarmenetik eratorritak egin edo egingo diren produkzioagatik kontratuak estrukturalak izateko akordioaren gainean lanean jarraitzen dugu.**

Bestalde, **ahalik eta lasterren zerrenden irekiera eta honekin batera birbaremazioa eta Ordezkaidea ordezkoen araudi berrira egokitzea eskatu dugu**

Beraz, LABetik sinatutakoaren jarraipen zorrotz eta etengabea egiten ari gara eta garatzeke dagoen eduki guztiaren inguruan proposamen zehatzak egiten jarraitzen dugu, besteak beste, funtzioak zehazteko eta garbiketa burua eta sukalde burua kategoria berrietara joateko barne promozioa arautzeko. Lizentzia eta Baimenak Heziketa Bereziko hezitzaileekin parekatzen duen Berme klausula lehenbailehen aplikatzeko eskaera zehatza egin dugu, hurrengo urratsa Lan Hitzarmenaren sinaduran jasotzea helburua dugularik.

Gracias al trabajo realizado por LAB, el Departamento de Educación ha dado marcha atrás y está cumpliendo con lo acordado en cuanto a ratios y metraje



El análisis de necesidades se ha retrasado, lo que ha incrementado la carga de trabajo del personal. Hemos presentado decenas de reclamaciones y hemos puesto sobre la mesa esta grave situación en todas las mesas de negociación celebradas. El Departamento de Educación, sin embargo, las ha ignorado, ha recurrido a excusas u otras interpretaciones para incumplir sistemáticamente lo acordado.

En las cocinas, la recopilación de datos de los comensales se a realizado nuevamente demasiado tarde. Hemos indicado una y otra vez desde LAB que estos datos deberían obtenerse con mayor antelación. En el acuerdo de modificación del convenio colectivo preliminar firmado el 22 de mayo solicitamos desde LAB y así se firmó, que para calcular los ratios (unicamente), la jornada laboral completa de los cocineros se computara como 7 horas, junto con el número de comensales. Hasta este momento no se ha aplicado esta medida y se ha realizado una interpretación errónea, aplicando los ratios del convenio anterior.

En limpieza, se evidenció la falta de previsión del Departamento, que solicitó un periodo de carencia en una circular enviada a los centros el 10 de octubre para poder realizar el análisis metros. Esto ha provocado el incumplimiento de la nueva normativa, que debía estar en vigor desde el 1 de septiembre, vulnerando así los derechos de los trabajadores.

Hoy hemos visto que Departamento de Educación finalmente está implementando lo que hemos estado exigiendo y solicitando desde LAB una y otra vez: por un lado, para calcular los ratios se aplicara un coeficiente de 7 horas en las cocinas, contratando al personal necesario y, por otro lado, desplegará más recursos de acuerdo con el nuevo metraje de limpieza. Desde LAB estamos supervisando de cerca que se proporcionen todos los recursos necesarios y continuaremos reclamando el abastecimiento de los centros donde haya carencias, para que se cumpla estrictamente lo estipulado en el Convenio Colectivo.

Desde LAB llevamos denunciando desde el inicio del curso escolar que el Departamento de Educación estaba retrasando el cumplimiento de lo estipulado en el nuevo Convenio Colectivo en lo que respecta a ratios y metraje.

El nuevo Convenio Colectivo, con el firme objetivo de limitar el empleo precario y poner fin al uso sistemático de contratos por motivos de producción de un tercio de la jornada, establece que la jornada mínima de este tipo de contratos no será inferior a media jornada. Estamos trabajando para cubrir las necesidades que no alcancen la media jornada, respetando siempre el mínimo antes descrito y garantizando lo estipulado en el convenio. «Cuando se construyan nuevas cocinas, se contratará personal del Departamento de Educación. En los centros con personal propio, si aumenta el número de metros cuadrados a limpiar debido a obras, se contratará personal propio; del mismo modo, si surgen nuevas necesidades de contratación por la disminución de la plantilla, se cubrirán con personal propio».

Además, seguimos trabajando en un acuerdo para que los contratos por motivos de la producción derivados del Convenio Colectivo que se han formalizado o se vayan formalizar sean considerados estructurales.

Por otro lado, hemos solicitado la apertura de las listas lo antes posible y que con ello, se adapten tanto la normativa de rebaremación como la plataforma para las sustituciones Ordezkabidea a la nueva normativa.

Por lo tanto, estamos supervisando de cerca y de forma continua lo firmado en el Convenio Colectivo y seguimos formulando propuestas específicas sobre todo el contenido que aún debe desarrollarse, incluyendo la definición de funciones y la regulación de la promoción interna para las nuevas categorías de responsables de limpieza y responsables de cocina. Hemos solicitado la aplicación inmediata de la cláusula de garantía, que equipara las licencias y permisos a los de los educadores y las educadoras de Educación Especial, realizado además una propuesta específica con el objetivo de incluirla en la firma del Convenio Laboral.